

ARGIAK ITZALTZEN DIREN TOKIA

Sara Uribe-Etxebarria

Zumaia

Lo-kantu bat itsasoari,
bertan amildu direnei,
ametsak ito dizkietenei,
oihartzun ilunari erreguka dihardutenei.

Lo-kantu bat,
isiltasun eternalera kondenatu zituztenei,
askatasun-egarriak bultzatuta,
gaur Mediterraneo hilobi dutenei.

Udazkenak garbitu ditu kaleak,
firin-faran laztanduz udaberriko azken loreak,
nostalgiaren kantu zaharren doinuan abestuz,
beren herdoildutako min-aieneak.

Emeki ferekatu zuten olatu bareek
zementuzko azala,
sentimenduak ukituko balira bezala,
besarkatuz begien kresala.

Kemena behar da izua beldurtzeko,
bihotza behar da arrailetan bitxiloreak loratzen
ikusteko,

eta enpatia mingotsa den negu gorriari,
ongietorri beroa emateko.

Leihorik gabeko gela honetan,
ez da oihu egiten duen arimarik,
urratuak dauden bihotzak, ez besterik,
ez da ahots ezirik,
oroitzapenetan lausotu zena, ez besterik.

Hareazko hitzek ernaldu zituzten
altzairuzko harresiak,
ikarazko euri-tantak lez,
amatatuz ilunabarreko azken argi-izpiak.

Etengabe aurrera doan orratzak
balantzarazten ditu
hari hauskorren gainean dabiltzan funanbulistak.
Hau da aulki-jokoa,
maitasuna airezko bilakatzen den zuloa
bi toki, hiru desioren leloa.

Itzali dira argiak, ireki da teloia,
hasi da antzerkia,
norgehiagokaren menpe bizi direnen olerkia,
kondaira ilun guztien amaigabeko geltokia.